

ZAINZA ZAINDU

*más
personal,
mejor
servicio*

Prekarietatearekin ez dago kalitaterik. Langile gehiago, zerbitzu hobea!

Bizitzan zehar, eta hamaika zergatirengatik, gizarte-laguntzaren beharra izan dezakegun egoera gorrietan egon gaitzke: menpekotasuna, babes eza, bazterketa, gabezia materialak, bortxakeria matxista. Babes soziala eskatzen duten egoerak dira guztiak.

Azken finean, denok duintasunez eta autonomiaz bizi nahi dugu, eguneroko bizikidetzan asebeteko gaituzten harremanak izan nahi ditugu, egunerokotasunean eta bizi garen inguruan ongi txertatuak dauden harremanak. Uko egin ezineko eskubide batez ari gara. Eta horrelako egoeretan, Administrazioak bermatu behar du eskubide hori, onuragarriak eta hurbilak diren zerbitzuak eskainiz.

Dena dela, gizarte zerbitzuen egoera oso kezagarria da. Gizarte laguntzaren eskariak erruz gaintitzen du eskaintza. Lehendik ahulak ziren gizarte zerbitzuek gaina jo dute krisialdi ekonomiko eta sozialaren egoerarekin. Eskatzaileen kopurua igo egin da eta beharrak, premiak handitu.

Eguno Gizarte Zerbitzuak eredu neoliberalaren arabera eratzen dira. Jendearen eskubide sozialak negozio bilakatzen ari dira. Honela, administrazioek zerbitzuak murriztu dituzte, eta era berean, erakunde pribatuen esku uzten ari dira, eta beraz, horiek irabazi-interesak gailentzen dira, zaintzaren kalitatearen kaltetan. Mozkinak eta superabita bilatzeak, enpresa eta erakunde pribatuak gero eta kualifikazio txikiagoko langileak kontratatzeraz daramatza, gero eta lan baldintza kaskarragoak ezartzera, gero eta eskasagoa den zerbitzua eskaintzera; hori guztia, administrazioen konplizitatearekin.

Gizarte zerbitzuetan ematen diren lan baldintzek ezinezko egiten dute laguntza egokia eskaintzea. Egoera bereziki salagarria da mendeko adinakoen laguntza eta egoitza-zentroetan, babesgabeko haur eta gazteen zentroetan eta ezgaitasunen bat dutenen zerbitzuetan.

Gaur egun, profesionalen eta zaindu beharreko pertsonen arteko proportzioak adierazten digu lanaren gainkarga dagoela, eta ondorioz, bideraezina da zaintza pertsonalizatua izatea. Baldintza horietan gizarte zerbitzuetako langileek egin behar duten ahaleginaren ondorioz haien osasunak txarrera egiten dau, oso bizkor, eta gihar eta hezurduren lesioak eta buruko arazoak handitu egingo dira, era kezagarrian. Gizarte-lanak gutxietsiak egoteak egoera okertu besterik ez du egiten, prekarietate eta iragankortasun mailak handiak, soldata apalak, urteko lanaldi luzeak,... ekarriz.

Honengatik guztiagatik aldarrikatzen dugu gizarte zerbitzu publiko eta unibertsalen beharra, bertze sistema publikoekiko alderagarria izanen dena, Hezkuntza eta Osasun sistemaren parekoa. Duintasunez eta autonomiaz bizitzeko eta gure inguruan ongi txertaturiko harremanak izateko kalitateko gizarte zerbitzuak behar ditugu, behar besteko baliabide eta bitartekoekin.

Xede horretan, otsailaren **19an sinadurak biltzeko kanpaina** egingen dugu, EAEko Parlamentuari eskatzeko:

- a) Adinekoen, adin txikikoen eta aniztasun funtzionala dutenen zentruetan plantilak handitzea eskatzen dugu.
- b) Arreta integrala eskaintzea posible izan dadin, administrazioei eskatzen diegu profilen eta funtzio profesionalen hedapena berma dezatela.
- c) Langileen, erakunde sozialen eta erabiltzaileen parte-hartzea eskatzen dugu, zerbitzu sozialetarako langileen beharrekin loturiko ebaluazio, kudeaketa eta erabakietan.

The logo consists of the letters 'LAB' in a bold, white, sans-serif font, centered within a dark blue square. The square is set against a white background.

www.lab.eus

ZAINZA ZAINDU

más
personal,
mejor
servicio

No hay calidad con precariedad. ¡Más personal, mejor servicio!

En algún momento de nuestra vida, y por diferentes razones, las personas podemos encontrarnos en situaciones personales críticas: dependencias, desprotección, exclusión, carencias materiales, conflictos relacionales, violencia machista. Son situaciones que precisan de apoyo social.

Todas las personas aspiramos a poder vivir de forma digna, autónoma y a mantener unas relaciones satisfactorias y bien integradas en la convivencia diaria y en los entornos en que nos movemos. Estamos hablando de un derecho social irrenunciable. Y en estas situaciones, la Administración tiene que garantizar este derecho con unos servicios que sean útiles y cercanos.

Sin embargo, la realidad de los distintos servicios sociales nos muestra una situación muy preocupante. La demanda de apoyo social supera con creces la oferta. Unos servicios sociales que ya eran débiles se han visto desbordados con una situación de crisis económica y social que ha provocado un aumento tanto de las personas demandantes, como del tipo de problemáticas y necesidades a tratar.

Los Servicios Sociales actuales están configurados bajo el orden neoliberal imperante. Los derechos sociales de las personas se están convirtiendo en negocio. Así, nos encontramos con que las administraciones han recortado servicios, al mismo tiempo que va dejándolos en manos de entidades privadas, que priorizan su cuenta de resultados, en detrimento de la calidad en la atención. La búsqueda de beneficio y superávit lleva a las empresas y entidades privadas a contratar personal menos cualificado, a imponer unas condiciones laborales peores y a una prestación de servicios más deficiente, con la complicidad de las administraciones.

Las condiciones de trabajo en los servicios sociales hacen imposible ofertar un apoyo adecuado. Esta situación es especialmente denunciada en los centros residenciales y de atención a las personas mayores dependientes, en los centros destinados a la infancia y juventud en situación de desprotección y en los servicios dirigidos a las personas con discapacidad.

La proporción entre profesionales y las personas a atender refleja una sobrecarga que hace inviable una atención personalizada. Al mismo tiempo, el sobre-esfuerzo a que están sometidas quienes trabajan en los servicios sociales hacen que su salud se resienta a pasos agigantados y se extienden de manera preocupante las lesiones musculoesqueléticas y los problemas mentales. La infravaloración del trabajo social no hace más que empeorar la situación con unos niveles de precariedad y temporalidad altos, bajos salarios y largas jornadas anuales.

Por ello, reclamamos la necesidad de un sistema de servicios sociales público y universal, comparable a otros sistemas públicos como el de Educación y Sanidad. El derecho a poder vivir de forma digna, autónoma y con relaciones bien integradas en nuestros entornos precisa de unos servicios sociales de calidad, con medios y recursos suficientes.

Con ese objetivo el **19 de febrero realizaremos una campaña de recogida de firmas** para exigir al Parlamento de la CAV:

- a) El aumento de las plantillas en los centros y servicios para personas mayores, menores y con diversidad funcional.
- b) Garantizar la ampliación de perfiles y funciones profesionales para ofrecer una atención integral.
- c) Participación de las trabajadoras y trabajadores, así como de las organizaciones sociales y personas usuarias en la evaluación, gestión y decisión relacionadas con las necesidades de personal en los servicios sociales.



www.lab.eus